

noauea

bizibaratzea.eus,
liburutik haratago
doan web gunea

Hondakinen
bilketa-tasa
%83,76ra iritsi da

“Kale Irekiak”
egitasmoa abiarazi
du Udalak



Urriaren 16an, lip dub grabaketa
“Hitza har dezagun” lemapean

G Auto Guria s.l



Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

BIDAIA TALDEAN
Irteera Lasarte-Oriatik

ARGENTINA



iparretik hegora · AURREIKUSITAKO IRTEERA 2017/01/30 ·



Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAOA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 633
info@noaobidaia.com
www.noaobidaia.com

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albistea iruditan

127.184 euroko saria

Arantxa Argazkiak saltokian egokitu da sari potoloa. 127.184 euro irabazi ditu norbaitek. Norbait diogu, albistea jaso genuen unean, sariturik oraindik ez zelako agertu. Aipatu salto-kiak lehendik ere sari garrantzitsu gehiago banatu izan ditu:

2015:

14.108 sari banatu zituzten, 113.246 euro guztira.

2013/03/21:

Loteria Nazionalaren bigarren saria.

2013/03/09:

100.000 euro, Jokerrean.

2012/08/24:

Loteria Nazionalaren lehen saria.

1999/04/15:

547.613 euro, Primitiban.



Aurreko astean 127.184 euro irabazi zituen norbaitek. Norbait diogu, albistea jaso genuen unean, sariturik oraindik ez zelako agertu.

Laburrean

1955. urtean jaiotakoen afaria, urriaren 15ean

Urriaren hirugarren larunbatean, urriak 15, 1955. urtean jaiotakoak batuko dira. Izena emateko bi aukera: 1955usurbil@gmail.com helbidera idatziz. Edo telefonoz: 615 760 458 (Patxi).

Urriaren 30ean, 1946an jaiotakoen bazkaria Antxetan

Izena aurrez eman beharko da Laurok liburu dendan, urriaren 23a baino lehen. Honatx Laurokeko telefono zenbakia: 943 36 34 48. Aurtan 70 urte bete dituzte edo beteko dituzte herritarrok.

Joseba Larratzerekin komikigintza tailerra

Urriaren 20tik ekainaren 15erako iraupe-na izango du. Ostegunero, 17:30-19:00 artean Potxoenean. Izena emateko epea: urriak 10. Inskripzio orriak Sutegin dira eskuragarri. Prezioa: 20 euro.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Sukalde kontuak

Amaitu da hauteskunde kanpaina. Edo ez. Eusko Legebiltzarrekoa behintzat igaro da, igaro denez. Atzean geratu da marketing garaia. Noizbait iritsi behar zuen. Hautagaien argazki onenak ikusi ditugu. Lema "borobilen" denbora pasa da. Lanean hasteko

unea da.

Azken orduan eserleku bat tokiz aldatu da, eta horrek beste testuinguru bat irekiko du Eusko Legebiltzarraren dinamikan. Eserleku bat gora edo behera, adostasunetara iristeko garaia heldu da. Sare sozialak astintzetik mahai baten bueltan elkartzeko unea,

beraz.

Ez gara atzo jaio. Eta jakin badakigu planteamendu batzuetan oso urruti daudela batzuk eta besteak. Gai horiek, apurka-apurka egosi beharko dira.

Premiazkoak diren beste kontu ugari badira, ordea. Gizarte laguntzan, ekonomia-

ren suspertzean, hezkuntza eremuan, osasun arloan... Arlo horietan badira adostasun handietarako helduleku batzuk. Elkarlanean aritzeko trebeak diren sukaldariak beharko dira orain.

Lehia garaia behintzat, amaitu da. Neurriak hartzeko ordua iritsi da.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Ilazki Gaintza | Maialen Unanue | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

Ika-Mika

Herriko pilotariak erbesteratuak

Usurbilgo herritarrek jakin dezatela bertako pilotarien egoera zein den.

Lehengo astebukaeran, ostirala, irailak 16, Gipuzkoako Txapelketako partidak jokatu behar ziren Usurbilgo frontoian, astearterako jada berria bazekitelarik udaletxean. Zinegotziak ostiral goizean bertan, jakinaraztera eman zigun ez

geneukala frontoirik libre egun horretan bertan arratsaldez partidak jokatzeko.

Horrelakoak aspaldian behin eta berriz pasatzen zaizkigu pilota elkartekoei.

Azkenean, partidak Zizurkiler mugitu behar izan genituen ez geneukalako non jokatu, beraz bai jokalariek eta baita ikustera joan nahi zutenek ere Zizurkileraino

joan behar izan zuten.

Politikariek kirola bultzatzen dutela? Bai hitzez. Herri honetakoek trabak besterik ez dituzte jartzen.

Eskola Pilotan entrenatzeko frontoirik ez daukagu, eta partidak jokatzeko askotan ere ez. Eta hori dena horrela izanik ere, jakin ezazue, txapelketa asko jokatzeko ditugula, baita batzuk irabazi ere!

Honekin guztiarekin eskatzen dizuegu alkate eta zinegotziei, hausnarketa sakon bat egiteko gai honen inguruan.

Frontoia pilotan jokatzeko da, plaza gehiago badaude bestelako gauzak egiteko.

Herrian ez daukagu frontoirik 2017. urterako.

Pagazpe P.K.E

Joseba Larratxeren komikia



Datorren astean ospatuko da Usurbil Herri Anitza! Jaia

Usurbilgo Udala, hainbat herritarrekin elkarlanean, urriaren 15ean ospatuko den Usurbil Herri Anitza jaialdia antolatzen dabil, “aniztasunaren balioa aldarrikatu eta plazaratzeko asmoz”. Besteak beste, iaz bezala, aurreratu digutenez, udalerrri honetan bizi diren jatorri ezberdinetako herritarren sorterriko jakiak dastatzeko aukera izango dugu. Gainerako egitaraua josten dabilta egunotan. Urriaren 15a baino lehen ordea, beste bi hitzordu antolatu dituzte:

Usurbil Herri Anitza!

Urriak 8-15

Erakusketa Sutejin: “Erakusketa honek jaso nahi ditu errefuxiatuen errealitateaz dagoen ezagutza eta kontzientziazio maila, eta harreraren aldeko gipuzkoar herritarren jarrera handitu, gazteen artean batik



Urriaren 15a baino lehen hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Erakusketa bat Sutejin eta ipuin-kontaketa Santueneko ludotekan (urriaren 14an).

bat eta arreta berezia eskainiz adingabe eta emakume errefuxiatuen egoerari”.

Urriak 14, ostirala

18:00 “Chertat eta Lehoia” Saharako ipuinaren kontaketa Santueneko ludotekan. Adin guztientzat. Antolatzailea: Suteji udal liburutegia.

Urriak 15, larunbata Usurbil Herri Anitza! Jaia

“Aniztasunaren balioa aldarrikatu eta plazaratzeko asmoz, Usurbil, herri anitza! izenburupean hainbat ekintza antolatu dituzte herritarrek eta Usurbilgo Udalak elkarlanean”.

“Eskerrik asko Bizipoza eguneko laguntzaile eta babesle guztioi”

“Poz handiz jakinarazten dizuegu irailaren 25ean Usurbilen ospatutako Bizipoza-aren Jaia oso ondo atera zela eta Bizipoza osatzen dugun 30 elkarteak oso pozik daudela. Jaiaren helburuak lortu ziren, bizipozez eta alaitasunez betetako eguna izan zen eta elkarteen bisualizazio eta sentsibilizazioan urrats polita eman zen. Gaurkoan zorionak eta eskerrik asko haundi haundi bat eman nahi dizuegu babesle eta laguntzaile guztioi, denon arteko elkarlan hau gabe ezinezkoa izango bailitzateke horrelako egun bat ospatzeari. Mila esker Bizipozaren jaierako emandako laguntzagaririk, eta zorionak eguneroan ere egiten duzuen lanagatik”, eskertu nahi dute Bizipoza Elkartetik, irailaren 25ean Usurbilen ospatu zen jaialdiaren inguruan.

Ika-Mika

1936ko altxamendu frankistaren 80. urteurrena

EAJ-PNVk gaitzetsi du eta gaitzesten du, Francok eta beste batzuk 1936an protagonizaturiko altxamendu faxista. Orduan, gainera, EAJ-PNVk borrokatu egin zuen basakeria militar hura eta ordaindu ere, Herri honetako milaka gizon eta emakumeen odolarekin askatasunaren defentsan, hau guzti hau Jose Antonio Agirre Lehendakariaburu genuela.

Indarrezko ekintza basati haren ondorioak geure haragitan jasan genituen, baita ondoren etorri ziren erbesteraketa, erre-

presio eta iraina ere, berrogei urte luzez gupidagabeko diktadura inposatu zuen erregimenaren aldetik, sistematikoki euskaldunen belaunaldi giza-eskubideak urratu zituen erregimenaren aldetik.

1977an Amnistiaren Legearen alde egin genuen demokraziaren biderako trantsizioaren marko berrian gure jardun politikoaz baliatu ahal izateko. Ez dugu ahazten, Amnistiaren Lege hari esker frankismoak errepresaliaturiko preso politiko guztiak atera zirela kartzetetatik, eta aldi berean,

erbesteratutakoak itzultzea ahalbideratu zuela, eta aurreko erregimenak bidegabeki agindutako eta bideratu gabeko guztiak ezabatzea.

Eusko Alderdi Jeltzalea harro dago dituen alderdikideetaz eta basakeria haren aurka borrokatu zuten haietaz, zeukaten gutxi hori ere sakrifikatu zuten haietaz, beraien bizitza, alegia. Eta horregatik memoria historikoa berreskuratu eta diktadurako biktimen kalte-ordaina emateko neurri guztien alde egingo dugu. Hori dela eta, benetan ulertzen dugu urtetan

urratutako eskubideengatik kalte-ordaina jasotzeko behar diren ekintza judizialei ekiten beharra sentitzen duten banakoen gogoa. EAJ-PNVk ulertzen ditu, Argentinako Buenos Aireseko 10. epaitegiaren aurrean 4591-10 kereilaren bidez bere eskubideen alde baliatzeko aukera egin duten aldeko pertsonak, edo erregimen frankistak fusilatu eta desagerrarazi zituen senitarte-koek aurkeztutako ekimenaren bidea hartu dutenak.

Usurbilgo EAJ-PNV

36ko altxamendu frankista salatu du, aho batez, Usurbilgo udalbatzak



Mozioa alderdi guztien ekarpenekin osatu zen. Argazkia, artxibokoa.

80 urte bete ziren irailaren 17an, tropa frankistak Usurbilen sartu zirenetik. Urtemuga honen harira Aitzaga Elkartek zenbait oroitzapen ekitaldi antolatu ditu egunotan, orduko sarraskia salatu eta eza-gutzerara emate aldera. Salaketa horretara batu da baita Usurbilgo Udala ere. Irailaren 27an egin zuten osoko ohiko bilkuran, gai honi buruzko mozioa onartu zuen udalbatzak aho batez. Onartu bakarrik ez, udalbatza osatzen duten talde guztien ekarpenekin landu eta osatu da puntuok dituen testua:

■ 1- Udalak uztailaren 18ko altxamendua salatzen du, baita 1936ko gerra eta ondorengo erregimen frankista diktatoriala ere.

MOZIOAN JASOA

“Usurbilgo Udalak frankismoaren biktimei egia, justizia eta erreparazioa zor zaiela aitortzen du”

■ 2- Udalak eskatzen du justiziak argitu ditzala udalerrian diktadura frankistak eragindako gizateriaren kontrako krimenetatik erator daitezkeen erantzukizunak, izan penalak edo bestelakoak.

■ 3- Udal honek diktadura frankistaren biktimak eta senitartekoak babesten ditu, eta gertakari eta pertsona horien memoria iraunarazteko borondatea erakusten du.

■ 4- Udalak frankismoaren

biktimei egia, justizia eta erreparazioa zor zaiela aitortzen du eta horrela, Argentinako jurisdikzioan irekitako kereilarekin bat egiten du.

■ 5- Gure herriko biktimek edo biktimen senitartekoek hala nahi izanez gero, ekinbide judizialak bideratzeko aholkua eta laguntza emateko prestasuna agertzen du udal honek. Horrekin batera, udalak egoikituko diren bitartekoak erraztuko ditu prozedura penalera erantsia izan dadin, udal artxi-boetan dagoen dokumentazio, testigantza eta proba oro, frankismoaren zapalkuntza guztien zentsu ahalik eta osatuena landu dadin.

■ 6- Etorkizunari begira, memoriaren eta bizikidetzaren aldeko konpromisoa berresten dugu.

Langabetuentzako prestakuntza saioa

Instalakuntza elektrikoen inguruko enplegu prestakuntza programa antolatu dute Buruntzaldea Beterriko udalerriek. Parte hartzaileek etxe eta eraikuntzetako instalakuntza elektrikoen inguruko formakuntza jasoko dute “tentsio baxuko lanetan eta etxeetako elektrikari laguntzaile moduan lan egiteko gaitasunak barneratuz. Prestakuntza honek, gerora elektrizitate arloan prestakuntza ibilbide bat jarraitzeko aukera eskaintzen du”.

Elektrizitate arloko 1. mailako Ziurtagiri Profesionala eskuratzear gain, “10 kontratu konpromiso izango ditu ikastaro honek”. Guztira 5 hilabete 6 kontratu eta 3 hileko 4 gauzatuko dira, lantoki ezberdinetan banatuta, bertako elektrikariaren eta lan-taldearen laguntzaile gisa.

■ 300 orduko prestakuntza programa Usurbilgo Lanbide Eskolak eskainiko da, erdaraz. ■ 55 urtetik gorako langabetuek lehentasuna dute, epe luzeko langabetuek, DBE onuradunek, eta 35 urtetik beherako (lehen enplegua) langabetuek.

■ Eskualdeko udalerrietako batean erroldatua egotea.

■ Prestakuntza atala egoki gaititzea.

■ 15 lagunentzako lekua.

■ Urriaren 13an hasi eta abenduaren 21era arte.

■ Argibide gehiago jasotzeko: Usurbilgo Udaleko Garapen eta Hezkuntza Saila: 943 371 951.

Lanbide Eskola: 943 364 600.

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361 182

Txokoaldeko tren geltokia, ekimen soziokulturaletarako

Garai bateko Txokoaldeko tren geltokia bizi-berritu asmo du Usurbilgo Udalak. Gunea jarduera soziokulturaletara bideratu nahi du. Horretarako, Eusko Trenbide Sarearekin elkarlanerako hitzarmena sinatuko du, eraikinaren erabileraren lagapena gauzatzeko. Hitzarmen hau sinatzearen alde agertu zen udalbatzaren gehiengo osoa, irailaren 27an egin zen osoko ohiko bilkuran. PSE eta EHBilduko udal ordezkariak babestu zuten proposamena. EAJ-ko ordezkariak aurka bozkatu zuten, ez baitute argi ikusten zertarako baliatu nahi den aipatu eraikina, zer nolako baldintzetan utziko den eta zer kostu eragingo dituen.

Gobernu taldetik erantzun zitzaizen esanez, hainbat arlo hartzen dituela eremu soziokulturalak eta hitzarmen honek ez duela “murrizta izateko boka-ziorik” Xabier Arregik zioenez. Hitzarmen honekin eraikina erabiltzeko esleipena gauzatu eta aurrerago zehaztuko dela gunearen erabilera.

EAJ-k ez du argi ikusten udal gobernuaren asmoa

Azalpenok ordeza, ez zuten aldarazi EAJ-ren posizionamendua. Aipatu moduan, proposamenaren aurka bozkatu zuten.



1987an, Eusko Jaurilaritzak Usurbilgo Udalari geltokiaren erabilera doan esleitu zion 50 urtetarako.

Gehiengo osoz onarturiko hitzarmena 5 urtetarako sinatuko da, urtez urte beste 5 urtera arte luzagarria izango da. Alegia, gehienez 10 urtera arte. Usurbilgo Udalak nabarmen-tzen duenez, “bere eskumenen barruan, interesa du zenbait jarduera kultural sustatzeko, eta horretarako, egoki irizten du Aginagako geltoki zaharreko eraikinari erabilera hori ematea, kontuan izanda une honetan ez duela tren erabilerarik, ezta bestelakorik ere”.

Lehen, baserriarren erabilerarako

1987an Eusko Jaurilaritzak Usurbilgo Udalari geltokiaren erabilera doan esleitu zion 50 urtetarako, “inguruko baserriarrek erabil zezaten”. Udalbatzak esleipen hura onartu zuen urte hartako apirileko osoko bilkuretak batean. Usurbilgo Udalaren izenean alkateak sinatuko duen hitzarmen berri honekin, erabilera aldaketa gauzatzeko da.

Urriak 10 astelehena, auzotarrek deituriko bilera Erroizpe elkartean

Txokoalde auzoaren egoe-rari buruz jarduteko deitu dute bilera. Hauxe NOAUA!ra igorri duten oharra: “Urriak 10 astelehena, arratsaldeko 18:00etan, auzotarren bilera egingo da Erroizpe Elkartean. Bertan landuko den gaia auzoaren egoera izango da”.

Artzi
Patriotas
Jatetxea

• bazkariak EGUNERO
• afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

talak
36-60

INQUIETUD
JANTZI-DENDA

Nagusia 49, LASARTE-ORIA

www.bizibaratzea.eus, liburutik haratago doan web gunea

Lehenbizi liburua izan zen: *Bizi baratzea* (Argia). Komikiaren txanda iritsi zen gero, *Bizi baratzea*, *altza porru* (Argia). Hari beretik dator web gunea: www.bizibaratzea.eus. Iametzta Interaktiboak garatu du web gunea. Asier Iturralde programatzaileak aditzera eman digunez, web gune hau ez da liburuaren egokitzapen hutsa.

NOAUA! Web gunea diseinatze-ko garaian, zein izan da jarraitu duzuen irizpide nagusia?

Asier Iturralde, iametzta.eus. Lehen sektorean dabilen jendearen bilgune izatea. Hori da helburu nagusia. Ez da baratzeari loturiko liburuaren agerkaria bakarrik. Asmoa haratago doa. Baratzeaz gain, beste atal nagusi batzuk ere badaude: fruitua, lorategia, etxe barruko landareak, basoa... Ez baratze kontuak bakarrik. Eta lehen sektoreari lotutako atal gehiago ere badira.

Partehartzeko aukera ugari eskaintzen ditu sareak. Hori ere izango da web orri honen ezaugarrietako bat, ezta?

Oinarritzko beste ideietako bat hori zen. Jendeak bere ekarpenak egiteko aukera izatea. “Dena dakienik ez da. Denon



Jendeak bere proposamenak bidali ahal izateko, web guneako orrialde gehienetan formulario bat dago. Asier Iturraldek aditzera eman digunez, jendearen partehartzeari garrantzia handia eman diote.

ASIER ITURRALDE

“Dena dakienik ez da. Denon artean dena dakigu” leloari jarraituz, web orria osatzeko aukera eskaintzen zaio irakurleari

artean dena dakigu” leloari jarraituz, web orria osatzeko aukera eskaintzen zaio irakurleari. Jendeak bere ekarpenak egin ditzake, edukiak partekatu, agendarako ekitaldien berri eman, Jakoba Errekondori galderak egin, hitzak proposatu,

liburuak aholkatu...

Eta nola bideratu duzue partehartzeko hori?

Jendeak bere proposamenak bidali ahal izateko, web guneako orrialde gehienetan formulario bat dago. Jendearen partehartzeak garrantzia handia du. Adibidez, lehen sektorearekin zerikusia duen zerbait antolatzen duen edonork, promozioa egiteko tokia du web honetan.

Egurdia edo agenda beazalako atal praktikoak ere batu dituzue.

Euskal Herri osoko herrietan eguraldi iragarpenak ipini ditugu, ilargiari buruzko informazioa ere bai.

Agendari dagokionez, edukiak gehitzen joateko asmoa dugu, baina esan bezala, eragileek (edo norbanakoe) euren deialdiak proposatzeko aukera ere badute.

Informazioa elkar trukatzeko xedea

Euskadi Irratia-ko Landaberri saioan, asko dira Jakobarengana jotzen dutenak iritzi eske. Hori asteen behin izaten da. Web gunean ordea, kontsultak edozein unetan planteatu daitezke.

Norbaitek web gunean galdera berri bat proposatzen duen bakoitzean, Jakoba Errekondori mezu bat iristen zaio. Erantzuteko ez dago epe finko bat ezarria. Irsten diren heinean erantzuten joango da.

Dena den, behin galdera publikoan ezartzen denean, edonork har dezake parte eztabaidan. Galdera bidali duena, Jakoba eta gainontzeko bisitarien arteko elkarrizketa sortzea litzateke helburua. Informazioa elkar trukatzeko, denon artean osatzen joatea... Hariak sortzea.

“Lehen egunetik hasi ziren galderak iristen”

NOAUA! Argia astekarian, asko dira Jakoba Errekondok plaza-ratu dituen artikulua. Horiek ere jaso dituzue web orrian, ezta?

Asier Iturralde, iametzta.eus. Asier egiten dituen artikuluen biltegia izango da. Urte piloa egin ditu Argian idazten. Eta ez baratzeaz bakarrik. Zahar zaharrak diren artikulua digitalizatzeko daude baina hala

ere artikulua piloa dago eta zaharrak joango gara gehitzen. Horiek denak web orrian batzea da asmoa.

Noiz hasi zineten lan honekin? Duela hilabete batzuk. Lehenbizi, web orriaren egitura definitu genuen. Orri bakoitzaren oinarritzko diseinu bat egin genuen gero, eta ondoren xehetasun denak fintzen joan gi-

nen. Behin hori dena zehaztu genuenean, web gunea egiten hasi ginen.

Zer nolako harrera izan du?

Lehen egunetik hasi ziren galderak iristen, hitzen proposamenak, ekitaldien iragarpenak... Euskadi Irratian emandako erantzun baten jarraipena ere iritsi da. Irratian Jakoba entzuten dutenak ere



Atal ugariz osatzen da bizibaratzea.eus web gunea.

badatoz hona.



VIB DUB HERRIKOA!



URRIAK 16 11:00
IGANDEA

libduphartistza@gmail.com

ANIMATU ETA HARTU HITZA!



Urriak 6, osteguna: Gazte Eguna

- 21:00 Gazte afaria.
- 00:00 Eliza Zaharrea: Kezka, Odolaren Mintzoa, Zaparra.

Urriak 7, ostirala: Umeen Eguna

- 10:00 Jolasak frontoian.
- 13:00 Bazkaria Eliza Zaharrea.

Arratsaldean, puzgarriak plazan, primerako txokolate jana eta buruhandi bizi-biziak!

- 19:00 Martxan Go taldearekin dantzan jartzeko saioa.
- 21:00 Bertso-afaria Eliza Zaharrea: Egaña eta Lizaso. Txartelak 18 eurotan salgai alde zurreretik: Aitzagan, Arrate egoitza.
- 00:00 Erromeria Eliza Zaharrea: Oharkabe Taldea. Ondoren, Karaokea.

Urriak 8, larunbata: Gaupasa Eguna

- 16:00 XXXV. Mus Txapelketa herrikoa (inskripzioa, 15:30-16:00 artean. Oharra: bikotekide batek aginagarra izan behar du).
- 18:00 Gorriti.
- 19:00 Poteoa Elektrotxaran-garekin.
- 00:30 Kontzertuak frontoian: Gozategi, Laiotz.

- 04:00 Aros DJ Eliza Zaharrea.

Oharrak:

- Herriko jubilatuen eskulanak ikusgai apaizetxean, urriaren 1ean, 4an, 7an eta 8an.
- Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.



ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA




Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!



·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
 ·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...



Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



berriaren app-a
beti eta edonon,
harian

Osoa • modernoa • bizia



App-ean ere,
berria laguna gehiago da

berria.eus/berriaaplikazioa



Klik! batean

Oraina eta geroa

Oilasko biltzaileen ohitura berritzen, artistak Aginagakoak.
Haurrak, gazteak eta ez hain gazteak; denak bat eginik.

Argazkia: Ion Markel



“Lip dub-aren grabazioarekin bozketa moduko bat antzeztuko dugu”

URRIAREN 16AN EGINGO DA ETA 500 LAGUN BATZEKO ERRONKA IPINI DUTE

NOAUA! Erraustegia Erabakia kontsultaren bueltan antolatu duzue lip dub-a. Sentsibilizazio kanpainaren barruan kokatu behar dugu ekimen hau?

Luken Arkarazo. Hori da helburu nagusia. Urriaren 21ean, 22an eta 23an egingo den herri galdeketa publikitate egitea. Baina ez bakarrik Usurbilen, baita Usurbildik kanpo ere.

Kanpoan ere oihartzuna izan dezan?

Bai, jende asko mugituko da. Herriko eragile gehienek hartuko dute parte, eta lip dub-aren grabazioan talde bakoitzari bere funtzioa eman nahi zaio. Dantzariak dantzan ipiniko ditugu, kirolariak kirola egiten...

Lip dub-ean parte hartuko duenari zer eskatuko zaio?

Jendea lotzeko garaian, zaila izaten da norbanakoa eta kolektiboaren artean dagoen muga hori finkatzea.

Bi bide jorratzen ari gara. Tikit bidez, nahi duenak eman dezake izena. Baina bestetik, herriko talde zein eragileen konpromisoa lotzen gabiltza. Eta talde bakoitzak bere elementu bereizgarria izango du.

Baina partehartzea sustatzea ere bada gure helburua:



Urriaren 16an igandea, eguerdiko 11:00etan egingo da lip-dubaren grabazioa.

LUKEN ARKARAZO

“Partehartzea sustatzea ere bada gure helburua. Beraz, lip-dub honetan denek izango dute bertan aritzeko aukera”

lip-dub honetan denek izango dute bertan aritzeko aukera.

Beraz, norbanako nahiz talde zein eragile oro animatu nahi ditugu.

Zein izango da ibilbidea?

Askatasuna Plazatik abiatuko gara. Bolatoki gaineko miradore horretan hasiko gara. An-

tzezlan bat egingo dugu bertan eta kantua hasten denean hasiko da lip dub-aren ibilbidea. Miradoretik jaitsi eta Bordatxo aurreko errotondara joko dugu. Hari buelta eman eta Mikel Laboa plazara sartuko gara. Hortik Udaletxe aldera joko dugu eta bertan bada frontoira doan kale estu bat. Hortik frontoira iritsiko gara eta han bukatuko da lip dub-aren grabazioa.

Logistika aldetik ez da ekimen erraza izango.

Udaletxearekin hitz eginda dago. Astebete lehenago entsegu modukoa egingo dugu. Ekipoa eta azpiegitura teknikoare-

kin ondo moldatuko garela ikusi nahiko genuke entsegu horretan.

Emaizta noiz egongo da ikusgai?

Ez dugu zehaztu baina urriaren 16an egingo dugu lip-duba eta hurrengo asteburuan egingo da galdeketa. Beraz, epe horretan egingo dugu publiko bidea.

Ez dugu kantuz hitz egin. Fermin Muguruzaren “Hitza har dezagun” hautatu duzue.

Horrelakoetan, kantu animatu bat behar izaten da. Erraustegiaren gaiari eta partehartzeari lotutako kantuetan erreparatu genuen baina, azkenean, Fermin Muguruzaren “Hartu hitza” kantua hautatu genuen.

Erraustegiaren aurkako agenda

Urriak 16, igandea

■ 11:00 “Lib dup” grabazioa Kaxkoan.

Urriak 21, 22 eta 23

■ Erraustegiari buruzko herri galdeketa Usurbilen.

Laguntzarako deia:

■ Bolondresak beharko dira antolaketa lanetarako eta galdeketa egunetan, hautes-mahietan egoteko.

■ Antolaketa gastuei aurre egiteko kamisetak salgai dituzue 6 eurotan NOAUA!n, eta kontu zenbaki bat ere zabaldu dute: ES 36- 3035 0140 37 1400030079.

Informazio gehiago:

■ Web gunea: erraustegiaerabakia.wordpress.com
 ■ Emaila: erraustegiaerabakia@gmail.com
 ■ Twitter: @U2erabaki

“Jendea animatu dadila, ondo pasako dugu”

NOAUA! Nola izango da grabaketa?

Luken Arkarazo. Bozketa moduko bat antzeztu nahi dugu. Lekuko bat egongo da eta lekuko horrek ibilbide osoa egingo du. Amaieran, frontoian den hautesontzi batean sartuko dugu.

Plano sekuentzia bakarrean grabatu behar da, hori da lip dub-aren beste ezaugarria.

Honakoan ez da dantzarik ikasi behar. Kontua animatua egotea da. Abestiaren erritmoari jarraitzea, eta kito.

Zenbat jende beharko da? Kalkulu hori egin al duzue?

500 lagun beharko ditugu. Kopuru hori kalkulatu dugu.

Animatzen denarentzat. Zeintzuk dira izena emateko bi-

deak?

Partehartu nahi duenak email bat idatzi dezala ondoko helbidera:

libduphartuhitza@gmail.com

Hori da errazena. Eta bestela, guregana etor daitezela izena ematera. Jendea animatu dadila, ondo pasako dugu eta partehartzeko gogoz etortzen badira, are hobeto pasako dugu.

Hondakinen %83,76ko gaikako bilketa-tasa Usurbilen, 2016ko lehen sei hilekoan

Iazko datuekin alderatuta, %0,15 igo da hondakinen gaikako bilketa-tasa, 2016ko lehen sei hilekoan Usurbilen. Hala jakinarazi du Usurbilgo Udalak kaleratu duen ondoko datu taularen bidez. Urtarriletik ekainerako hilabetekako datuak plazaratu dituzte. Bertan ikus daiteke, sei hileko bataz besteko gaikako bilketa-tasa %83,76koa izan arren, otsailean esaterako %85,58ko tasaraino ere heldu ginela Usurbilen. Udalaren atarian, usurbil.eus web gunean ikus ditzakezue azken hilabeteotako eta 2013-15 urte arteko datuak.

2.016	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Guztira
Autokonposta /Auzokonposta	13,25	15,36	13,20	12,77	13,18	12,74	80,51
Organikoa	57,48	64,46	62,08	58,26	66,44	62,74	371,46
Papera eta kartoia	30,86	37,48	36,38	32,38	28,98	41,24	207,32
Ontzi arinak	23,46	21,72	22,46	22,52	23,98	20,86	135,00
Beira	15,54	23,48	11,67	18,66	9,80	17,44	96,58
Industria guneetako gaikako bilketa (Egurra, lina, plastikoa, poliespana)	19,60	20,18	22,52	20,54	24,82	23,47	131,13
Besteak							0,00
Pilak	0,11	0,00	0,06	0,00	0,07	0,01	0,25
Ehunak	4,35	3,49	4,27	3,79	5,23	6,20	27,33
Ebeko olioak	0,02	1,03	0,16	0,13	0,19	0,00	1,52
Garbigunea	31,93	47,51	17,15	43,95	29,45	30,00	199,98
Gaika kudeatutakoa guztira	196,59	234,71	189,96	212,99	202,13	214,70	1251,08
Errefusa	32,34	30,72	33,38	30,02	29,48	37,20	193,14
Kale garbiketa	5,56	8,84	9,36	9,00	6,40	9,62	48,78
Errefusa guztira	37,90	39,56	42,74	39,02	35,88	46,82	241,92
Kudeatutako Hiri hondakinak	234,49	274,27	232,70	252,01	238,01	261,52	1493,00
Gaikako kudeaketa (%)	%83,84	%85,58	%81,63	%84,52	%84,93	%82,10	%83,76

Iazko datuekin alderatuta, igo egin da gaikako bilketa-kopurua.

Valentzian ere, eredugarri

Euskal Herriko hainbat txokoetan, Katalunian, Bristol... Eta orain Valentzia aldean baita. Eredugarritzat dute Usurbilgo hondakinen bilketa eredua, udalerri honetako mugetatik kanpo. Berriki, hango Ecofira ingurumen azokan parte hartu du Usurbilgo Udalak.

“Usurbilgo hondakinen bilketa eredua aurkeztu dugu, arloko hainbat eragileren aurrean: enpresak, udaletako ordezkariak, erkidego autonomoetako ingurumen zuzendariak, etab. Goizean, gaikako bilketa eta hondakin organikoaren bilke-



Ibon Goikoetxea Retegi ingurumen-teknikariak aurkeztu zituen Usurbilgo Atez Ateko bilketaren xehetasun guztiak.

tari buruzko jardunaldiak izan dira. Bertan, Usurbilgo eta Argentonako hiri hondakinen

bilketa azaldu da. Aldi berean, ingurumen aholkulari ezberdinak hondakin organikoaren

gaikako bilketa eraginkor baten garrantziaz eta ingurumen fiskalitateari buruz mintzatu dira. Arratsalde berriz, Baleareetako, Kataluniako, Valentziako, Madrilgo, Nafarroako eta Ingurumen ministerioko hondakin gaietako arduradun politikoen arteko mahai-ingurua izan da. Bio-hondakinak, ontzi arinen gaikako bilketaren hobekuntzak, sortzez beste-ko ordainketa etab. izan dira mintzagai. Usurbilgo Udalaren aldetik, Ibon Goikoetxea Retegi ingurumen-teknikariak aurkeztu ditu Usurbilgo Atez Ateko bilketaren xehetasun guztiak, berri eman du Udalak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL


ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Denontzako espazio publikoa eraikitzeko prozesu parte-hartzailea jarri da martxan

Gaur hasi eta “etorkizunari begira Usurbilgo espazio publikoa nolakoa izango den diseinatu dezagun denon artean, herri proiektu hori mamitu dezagun eta urtez urte joango gara neurriak hartzen norabide horretan”. Hauxe, Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Arregik aurreko astean luzatu zien gonbita, herritar, eragile eta udaleko kideei, aste hasiera honetan abiatu duten prozesu parte-hartzailea aurkezteko Mikel Laboa plazan egin zen ekitaldian.

Prozesu berri honetan, espazio publikoa berrantolatatu nahi da guztion laguntzaz, “hartara egokiagoa izango den guztiontzako Usurbil eraikiko dugu, denon beharrianak kontuan hartuta” zioten ekitaldian.

Erabakiak kolektiboki hartzeko garaia

Hortik egitasmoari jarri dioten izena; “Kale Irekiak”. “Orain arte, erabaki guñeak udal bulegoetan, udal politikari eta teknikarien esku egon dira. Baina guk uste dugu garrantzitsua dela, espazio publikoek erabilera kolektiboa duten neurrian, erabakiak kolektiboki hartzea ere”, zioen prozesua bideratuko duen Urak Bide arkitektura taldeko kideak.



Aurreko astean aurkeztu zuten “Kale irekiak” egitasmoa. Hurrengo batzarra urriaren 5ean egingo da Potxoenean.

Azaroaren 21era arte luzatuko da prozesua

Nolako Usurbil nahi dugun erabakitzeko batzarrek egingo dira datozen asteotan, auzoka, haurrekin, emakumeen topaketak antolatuko dira, baita eguneroko bizimoduaren eta mugikortasunaren inguruko saio bat ere. Azaroaren 21era arte luzatuko den prozesu honen baitako saio guztiotan jasotako ekarpenak, plan zuzentzaile batean bilduko dira. Plan hau landuko duen Urak Bide, tokiko arkitektura eta ingeniari taldeak hainbat irizpide finkatuko ditu gero, mugikortasunari (oinezko eta bizikleten erabilera lehenesteari, eguneroko bizimoduaren, haur eta nagusien zaintza lanak kontuan hartzei, emakume eta haurren segurtasunari, iris-

garritasunari...) dagokionean. Eta plan hau ere berrir jendaurrean aurkeztuko da 2017ko otsailean.

“Hirigintza jasangarriago batean”

Bertan, herritarrek berriz lehentasunak finkatzeko aukera izango dute. “Hortik aterako den proposamena, herri honek bere burua antolatzeko, diseinatzeke herri proposamena izango da. Sekulako garrantzia duena. Gaur etxebizitzak errepideez inguratuak ezagutzen ditugu. Guk nahi duguna Usurbilen, pertsonak, oinezkoak eta bizikletan ibiltzen direnak izatea, hirigintza jasangarriago baten testuinguruan benetan ardatz izango direnak”, adierazi zuen alkateak.

“Pertsonen beharrak jarri behar ditugu lehen planoan”

Azken hamarkadetako hirigintza planen eredu iraui nahi du Udalak, egitasmo berri honenkin.

“Beste hainbat herri bezala, Usurbil, autoaren mugikortasunaren inguruan eraikitako herria da. 60-70eko hamarkadetan hasita, jada markatu zen kotxea ardatz hartuko zuen herri eredu bat, eta harrez gero egin diren

hirigintza proiektuetan, bide beretik segi dugu. Usurbilen kotoxeak du lehentasuna gaur egun eta pertsonen beharrak bigarren mailan geratu dira, mugikortasun presakakoa gailendu zaio, mugikortasun lasai, patsadatsu, pausatuari. Horrek hausnarketa, berrantolaketa baten beharra eskatzen du, eta pertsonen beharrak ere jarri behar ditugu

lehen planoan”, alkateak aurkezen ekitaldian zioen.

Hitzordura bertaratu ziren eragileetako ordezkari, udal langile, politikari edota herritarrei, abiatzearen prozesu parte-hartzailearen gida liburuxka eta lore bana banatu zitzaizkien; “Usurbilgo kaleak eraldatuz doazen heinean, hazten joango den lorea”.

“Kale Irekiak”

Urriak 5, asteazkena

■ 18:30 Batzarra Potxoenean.

Urriak 17-20, astelehenetik ostegunera

■ Haurren astea ikastolan eta herrian zehar.

Urriak 19, asteazkena

■ 18:30 Emakumeon topaketa Potxoenean: bideo emanaldia eta hausnarketa.

Urriak 22, larunbata

■ 18:30 Batzarra Potxoenean: “Eguneroko bizimodua eta mugikortasuna”.

Urriak 26, asteazkena

■ 18:30 Emakumeon topaketa Potxoenean: Ibilaldia herrian zehar.

Azaroak 2, asteazkena

■ 18:30 Batzarra Potxoenean, aurreko saioetako lanketa borobiltzeko.

Otsailean...

■ Plan Zuzentzailearen aurkezpene eta lehentasunak finkatzeko batzarra.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Carod-Rovira Usurbilen



Nafartarrak taldearen eskutik iritsi zen gure artera. Hitzaldiaren aurretik, harrera egin zioten Udaletxean.

